

Azterketak



Gizarte Ongizatearen
zerbitzuko
Fiskaltasunaren alde

ELAko Azterketa Bulegoa

Non zer

A. FISKALTASUNA HEGO EUSKAL HERRIAN: EUROPAREKIKO ALDEA ETA ERREFORMAK..... 3

1. Presio fiskala Euskal Herrian eta Europar Batasunean
2. PFEZaren eta Sozietateen gaineko Zergaren erreformak

B. FISKALTASUNA EUSKAL AUTONOMI ERKIDEGOAN 9

1. Hitzartutako zergen bilketa.
2006koa eta 2005ekoarekiko bilakaera
2. Hitzartutako zergen Presio Fiskala.
2006koa eta 1998koarekiko bilakaera
3. Gastu fiskalak
4. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga (PFEZ).
2004koa eta 1999koarekiko bilakaera
5. Sozietateen gaineko Zerga
6. Zerga-Ikuskapenak

C. FISKALTASUNA NAFARROAN 19

1. Hitzartutako zergen bilketa.
2006koa eta 2005ekoarekiko bilakaera
2. Hitzartutako zergen Presio Fiskala.
2006koa eta 1998koarekiko bilakaera
3. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga (PFEZ).
2005ekoa eta 2001ekoarekiko bilakaera
4. Zergen Ikuskapenak
5. Gastu fiskalak



Estudios-Azterketak Saila 11. zenbakia
Bilbao, 2007ko azaroa

A. FISKALTASUNA HEGO EUSKAL HERRIAN: EUROPAREKIKO ALDEA ETA ERREFORMAK

1. PRESIO FISKALA EUSKAL HERRIAN ETA EUROPAR BATASUNEAN

Euskal Herriko zerga-egoera eta Europakoa erkatzeko, presio fiskalaren maila zein den jakin behar da. Zergak (zuzenekoak, zeharkakoak eta tasak) eta gizarte-kotizazioak direla medio biltzen den diru guztiak ekonomian duen pisuari esaten zaio presio fiskal.

Hego Euskal Herriko presio fiskala Europar Batasuneko txikienetakoa da, gureak Irlandakoa baino ez baitu atzetik. Txostenaren atal honetan bildutako datuak 2005ekoak dira, alderaketa egiteko Europari buruz ditugun azken datuak ekitaldi horretakoak dira eta.

Nafarroako presio fiskala BPGaren %33,6koa da; alegia, ekonomian sortzen diren ehun eurotik 33,6 zergak eta kotizazioak ordaintzeko erabiltzen dira. EAEn, presio fiskala are txikiagoa da, BPGaren %32,6koa, hain zuzen ere.

Bestalde, Europar Batasuneko batez bestekoa BPGaren %39,6koa da. Hala ere, Batasunaren barruan, jauzi nabaria dago estatu batetik bestera. Ondoko taulan ikus daitekeenez, Suediako presio fiskala BPGaren %51,3koa da, Irlandak –alegia, Hego Euskal Herrikoa baino presio txikiagoa duen estatu bakarrak–, berriz, %30,8ko presio fiskala duenarik.

EUROPAR BATASUNEN PRESIO FISKALA. 2005. (BPG %)

	GUZTIRA	ZEHARKAKOAK	ZUZENEKOAK	GSko KOTIZ.
Suedia	51,3	17,3	20,1	13,8
Danimarka	50,3	17,9	31,4	1,1
Belgika	45,5	13,9	17,8	13,9
Finlandia	43,9	14,1	17,9	12
Frantziako E.	44	15,8	11,9	16,4
Austria	42	14,7	12,9	14,5
Italia	40,6	14,5	13,5	12,6
Luxenburgo	38,2	13,4	14,1	10,7
25-EB	39,7	13,8	13,2	12,8
27-EB	39,6	13,8	13,1	12,8
Alemania	38,8	12,1	10,3	16,3
Herberek	38,2	13,1	11,9	13,1
Erresuma Batua	37	13,3	16,8	6,9
Grezia	34,4	12,9	9,5	12,1
Espainiako E.	35,6	12,5	11,4	12,2
Portugal	35,3	15,3	–	11,3
Nafarroa	33,6	10,8	9,8	12,2
EAE	32,6	10,7	9,5	11,5
Irlanda	30,8	13,6	12,4	4,8

Iturriak: Eurostat, Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua, Eustat, INE

Hego Euskal Herriko presio fiskala Europako batez bestekoa baino txikiagoa da bai zuzeneko zergetan, bai zeharkakoetan, bai gizarte-kotizazioetan; eta hori EAEn zein Nafarroan gertatzen da. Alderik handiena zuzeneko zergetan ageri da (BPGaren 3,3 puntu txikiagoa Nafarroan, eta 3,6 puntu txikiagoa EAEn); hurrengo jauzi handiena zeharkako zergetan ikusten da (BPGaren 3 puntu, bi erki-degoetan). Gizarte-kotizazioetan jazotzen den presio fiskalaren defizita BPGaren 0,6 puntukoa da Nafarroan, eta BPGaren 1,3 puntukoa EAEn.

Presio fiskalaren mailaren eta ongizateko estatuaren garapenaren artean, zuzeneko lotura dago, jakina. Gizarte-estaldura gehiago dauden lekuetan, presio fiskala handiagoa da, eta gizarte-gastu murriztagoa egiten den estatuetan, presio fiskala ere urriagoa da.

Europako batez besteko presio fiskalaren mailara heltzeko, Hego Euskal Herriko urteko zerga-bilketak gaur egungoa baino 4.920 milioi euro gehiagokoa izan beharko luke: 4.028 milioi euro gehiago bildu beharko liriteke EAEn, eta 882 milioi gehiago Nafarroan.

EAE	4.028 milioi €
NAFARROA	892 milioi €
HEH	4.920 milioi €

Iturriak: Eurostat, Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua, Eustat, INE

2. PFEZaren ETA SOZietATEEN GAINeko ZERGAREN ERREFORMAK

PFEZaren eta Sozietateen gaineko Zergaren erreformak 2007an hasi dira indarrean, bai EAEn, bai Nafarroan. Egin diren aldaketa guztiak azken urteetan onartutako aldaketen norabide berean doaz:

2.1. Zergen bidez bildutakoaren urripen nabaria

EAEn, 2007tik aurrera, 446 milioi euro geratuko dira urtero bildu gabe (236,7 milioi PFEZan eta 200 milioi Sozietateen gaineko Zergan). Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiek adostutako erabaki politikoen ondorioz galtzen den diru hori oso ondo letorke gizartegasturako. Bildu gabeko zenbateko hori Jaurlaritzak Etxebizitza Sailera bideratzen duen guztizkoa (180 milioi) baino 2,5 bider gehiago da.

Nafarroan, Errentaren gaineko Zergaren inguruan onartu den erreformaren eraginez, 86 milioi euro galduko dira urtero zerga-bilketan. Oraindik zenbatetsi gabe dago zenbat diru geratuko den bildu gabe Sozietateen gaineko Zergan onartutako urripenen ondorioz.

2.2. Errenta handiek ordaindu beharreko zergen beharpena

PFEZaren beharpenak errenta handienei dakarkie onura. EAEn, tasa marjinala %48tik %45era jaitsi da; 1998tik hona, errenta handi horiek ordaindu behar duten zerga 11 puntu murriztu da (%56tik %45era). Nafarroan, tasa marjinala %44tik %42ra gutxitu da.

2.3. PFEZa lan-errentetara mugatutako zerga da

PFEZaren erreformen joera ikusita, zerga hori lan-errentek baka-rik jasatea da xedea, honako alderdi hauen zioz:

- Enpresarien, profesionalen eta kapitalaren jardueretan jazozen den iruzur fiskal itzela, txosten honen beste atal batean azaldu dugunez.

- Kapitalaren errententzat tasa bakarrak (baxuak eta ez-hazkorrak) ezartzea.

Horrela, errotik aldarazten ari da zerga horren gaineko ikusmoldea, zergak tarifa hazkor baten arabera zergapetu beharko bailituzke errenta guztiak.

2.4. Sozietateen gaineko Zerga, gero eta txikiagoa

Bai Nafarroako Gobernua, bai EAEko instituzioak (Eusko Jaurlaritza eta Foru Aldundiak) buru-belarri dabilta Sozietateen gaineko Zerga murrizteko atazan. Dagoeneko, 2008an Hego Euskal Herriko lurralde guztietan egingo diren beherapenak hasi dira iragartzen.

Aldaketarik esanguratsuenak zergaren tasa nominala murrizteko eta kenketak areagotzeko ildotik doaz.

Tasa nominalen beherapenei dagokienez:

- EAEn, tasa orokorra %32,6tik %28ra jaitsiko da. ETEei aplikatu beharreko tasa (berez txikiagoa), areago gutxituko da, oraingo %30etik %24ra, zehazki. Gainera, zerga-ondorioetarako, enpresa gehiago hartuko dira ETEtzat, eta, ondorioz, enpresa horiek ordaindu beharreko tasa %32,6tik %24ra jaitsiko da. Gipuzkoan %30eko tasa orokorra planteatzen ari dira.
- Nafarroan, zergaren tasa orokorra %35etik %32,5era jaitsiko da. Honako irizpide hauen arabera murriztuko da tasa:
 1. %35etik %28ra, 6 eta 9 milioi euro arteko negozio-zifra duten enpresentzat.
 2. %32,5etik %28ra, 1 eta 6 milioi euro arteko negozio-zifra duten enpresentzat.
 3. %30etik %25era, milioi bat eurotik beherako negozio-zifra duten enpresentzat.

SOZietATEEN GAINEKO ZERGAREN TASAK (%).
NAFARROA, 1996-2007

	1996	2001	2005	2007
Orokorra	35	35	35	32,5
9.000.000 €-tik beherako negozioa duten enpresak	35	35	35	28
6.000.000 €-tik beherako negozioa duten enpresak	35	32,5	32,5	28
1.000.000 €-tik beherako negozioa duten enpresak	35	32,5	30	25

Iturria: ELAren Azterketa Bulegoa

Zerga-kenketei buruz, hainbat aldaketa proposatu dituzte; aldaketa horien osoko emaitzak kenketen gehikuntza erakusten du. Bide horretatik, zergaren benetako tasa areago gutxituko da.

ELAk lehenago ere adierazi zuen beherapen horien gaineko iritzia, honako alderdi hauek azpimarratuz:

- Euskal Herriko Sozietateen gaineko Zergaren presio fiskala Europako batez bestekoa baino txikiagoa da.
- Sozietateen gaineko Zergaren benetako tasa %17koa da, tasa nominala baino askoz murriztagoa, alegia.
- Enpresen erdiek ez dute ordaintzen Sozietateen gaineko Zergaren zioz; horrek argi erakusten du zerga horretan egiten den iruzur fiskal handia.
- Zergaren tasa murrizteak ez du enpresen lehiakortasuna hobetuko; bai gizenduko ditu, ordea, enpresarien poltsikoetara doazen mozkinak.

B. FISKALTASUNA EUSKAL AUTONOMI ERKIDEGOAN

1. HITZARTUTAKO ZERGEN BILKETA. 2006koa ETA 2005ekoarekiko BILAKAERA

2006ko ekitaldian, **12.552,3 milioi euro** sartu ziren Euskal Autonomia Erkidegoko diru-kutxetara, hau da, aurreko urtealdian **baino %11,4 gehiago. Pisu handieneko zergak** honako hauek izan ziren:

- **BEZ:** 4.673,8 milioi euroko bilketa eragin zuen, hau da, bilketa osoaren %37,2, 2005ekoaren aldean %11,6 hazita.
- **PFEZ:** bilketa handieneko bigarren zerga izan zen (3.754,2 milioi euro); zehazki, guztizkoaren %29,9 bildu zen zerga horren zioz, aurreko urtekoarekiko %10,3ko hazkundera izanik.
- **Sozietateen gaineko Zergaren** bidez, 1.692,4 milioi euro bildu ziren, guztizkoaren %13,5 alegia. Enpresen mozkinak zergapetzen dituen zerga horrexek izan zuen hazkunderik handiena (%17,5) 2005eko datuekin alderatuta, EAEko enpresak eskuratzen ari diren mozkin ugarien erakusgarri.
- **Zerga Berezien** ondoriozko bilketa 1.355,2 milioi eurokoa izan zen, hots, guztizkoaren %10,8. Zerga Berezien bilketa %5,2 hazi zen.

ZERGA GARRANTZITSUENEN BILKETA, ZERGA MOTAREN ARABERA. EGITURA ETA BILAKAERA. EAE, 2006-2005

	2006		2005-2006
	Milioi €	%	Ald. %
BEZ	4.673,8	37,2	11,6
GUZTIZKO PFEZ	3.754,2	29,9	10,3
SOZIETATEEN GAIN. ZER.	1.692,4	13,5	17,5
Z. BEREZIAK	1.355,2	10,8	5,2
GAINERAKOAK	1.076,7	8,6	13,7
GUZTIRA	12.552,3	100	11,4

Iturria: Eusko Jaurlaritz

Zuzeneko zergek eta zeharkako zergek eragindako diru-sarreak aztertzean, hauxe ikus daiteke:

- Bilketaren zati handiena **zeharkako zergak** eragin zuten: 6.728,1 milioi euro sartu ziren foru-ogasunen kutxetara, zerga horien bitartez. Zeharkako zergak batez bestekoaren (%10,6) azpitik hazi badira ere, guztizko bilketaren %53,6 ekarri dute.
- **Zuzeneko zergen** ondoriozko diru-bilketa guztizkoaren %45,6koa izan zen: 5.720,6 milioi eurokoa, hain zuzen ere. Zuzeneko zergen bitartez, 2005ean baino %12,7 diru gehiago bildu zen.

**HITZARTUTAKO ZERGEN BILKETA, ZERGA MOTAREN ARABERA.
EGITURA ETA BILAKAERA. EAE, 2006-2005**

	2006		2005-2006
	Milioi €	%	Ald. %
ZEHARKAKO ZERGAK	6.728,1	53,6	10,6
ZUZENEKO ZERGAK	5.720,6	45,6	12,7
GAINERAKOAK	103,6	0,8	-1,6
GUZTIRA	12.552,3	100	11,4

Iturria: Eusko Jaurlaritz

Zuzeneko zergen bilketaren azterketa zehatzak honako datu hauek agertzen ditu:

- Lanaren PFEZren bidez, 3.755 milioi euro bildu ziren, hau da, aurreko ekitaldian baino %8,7 gehiago. Guztizko bilketaren %65,6 eragin zuen lanaren PFEZk; hots: zuzeneko zergen bidez bildutako 10 eurotik 6 baino gehiago lanaren errentek ipini zituzten.
- Enpresaburuen, profesionalen eta kapitalaren errentek, berriz, 2.072 milioi euroko ekarpena egin zuten, hau da, zuzeneko bilketa osoaren %36,2. 2005eko datuen aldean %16,1eko hazkundera izan duen errenta mota hori zehaztasunez aztertzean, hauxe ikus dezakegu:
 - a) *Sozietateen gaineko Zergak* 1.692,4 milioi euroko bilketa eragin zuen, hau da, zuzeneko zergen bidez bildutakoaren %29,6.
 - b) *Enpresaburuen, profesionalen eta kapitalaren PFEZren* bitartez, 380,3 milioi euro bildu ziren, zuzeneko bilketaren %6,6, alegia. PFEZ mota horrek %10,5eko hazkundera izan zuen, 2005koarekin konparatuta.

ZUZENeko ZERGEN BILKETA, ZERGA MOTAREN ARABERA.
EGITURA ETA BILAKAERA. EAE, 2006-2005

	2006		2005-2006
	Miloi €	%	Ald. %
LANAREN PFEZ	3.755,0	65,6	8,7
- SOZIETATEEN GAINeko Z.	1.692,4	29,6	17,5
- ENP., PROF., KAP. PFEZ	380,3	6,6	10,5
ENP., PROF., KAP. ERRENT. (*)	2.072,7	36,2	16,1
GAINERAKOAK	-107,2	-1,9	-34,5
ZUZENeko ZERG., GUZTIRA	5.720,6	100	12,7

Iturria: Eusko Jaurlaritza

() Sozietateen gaineko Zerga + Enpresaburuoen, profesionalen eta kapitalaren errenten PFEZ*


**2. HITZARTUTAKO ZERGEN PRESIO FISKALA. 2006koa
ETA 1998koarekiko BILAKAERA**

2006ko ekitaldian, hitzartutako zergen presio fiskala **BPGaren %20,3koa** izan zen EAEn. Horrek esan nahi du ekitaldi horretan ekonomian sortutako 100 eurotik 20,3 hitzartutako zergak ordaintzeko erabili zirela.

Presio fiskalaren portzentaje horrek 0,7 puntuko gehikuntza erakusten du, 2005ekoarekin alderatuta, eta 1,5 puntuko gehikuntza, 1998ko ekitaldikoarekin erkatuz gero. Bilakaera hori azken bi urteetan izandako hazkundeak eragin du, aurreko urteetan presioa nahiko konstante egon baitzen.

Zuzeneko zergen presioa BPGaren %9,2koa izan da; portzentajea konstante mantendu da aztertutako aldian. **Zeharkako** zergen presio fiskala, aldiz, 1998an BPGaren %9,5koa izatetik BPGaren %10,9ra heldu da 2006an, eta, ondorioz, guztizko presio fiskala ere areagotu da.

Guztizko presio fiskala haztea onuragarria den arren, ezin dugu halakotzat jo hazkunde hori zeharkako zergen gehikuntzaren ondorioa izatea, zeharkako zergak, izan ere, biztanle guztiak ordaindu behar baitituzte, bakoitzaren diru-sarreraren munta edozein dela ere. Bide horrek **zerga-sistema atzerakoiagoa** dakar.

HITZARTUTAKO ZERGEN PRESIO FISKALA. GUZTIZKOA, ZUZENEKOAK ETA ZEHARKAKOAK. 1998-2006 (BPG %)



Iturriak: Eusko Jaurlaritz, Eustat

Zuzeneko zergen presio fiskalak izan duen bilakaeraren azterketa zehatzak erakusten duenez:

- Lanaren PFEZren presio fiskala BPGaren %6,1koa izan zen 2006an. Nahiko bilakaera konstantea agertzen du, 1999an 0,4ko urripena izan ondoren.
- Enpresaburuen, profesionalen eta kapitalaren errenten presio fiskala BPGaren %3,3koa izan da 2006an, hau da, 1998koa baino 0,3 puntu altuagoa eta 2005ekoa baino 0,2 puntu handiagoa. Hortaz, errenta horien presio fiskala lanaren PFEZk jasaten duenaren erdia da ia. Enpresaburuen, profesionalen eta kapitalaren errenten presio fiskalaren gehikuntza Sozietateen gaineko Zergak eragin du; izan ere:
 - a) *Sozietateen gaineko Zergaren* presio fiskala -2006an, BPGaren %2,7koa- 0,6 puntu hazi da 1998koarekiko, eta 0,2 puntu, 2005eko ekitaldikoaren aldean.

- b) *Enpresaburuuen, profesionalen eta kapitalaren PFEZren presioa BPGaren %0,6koa izan da 2006an, azken bi urtealdietan bezala, eta 0,3 puntu gutxitu da 1998koari buruz.*

HITZARTUTAKO ZUZENEKO ZERGEN PRESIO FISKALA.
1998-2006 (BPG %)



Iturriak: Eusko Jaurlaritza, Eustat

3. GASTU FISKALAK

Gastu fiskalak zerga-kenketa, salbuespen eta antzekoen zioz foru-ogasunek biltzen ez dituzten diru-kopuruak dira, eta **nabar-menki murritzten dute bilketa**. Administrazioen zuzeneko gastua gastu fiskalak baino askoz aurrerakoiagoa da: gastu fiskalek ez dakarkiete onurarik baliabide urrienak dituzten biztanleei, eta onuragarixekoak dira aukera gehiago dituztenentzat.

Foru Ogasunen gastu fiskaletarako aurrekontua 5.793,5 milioi eurokoa izan zen 2006an, zerga-onurarik ez balego bilduko liratekeen diru-sarreraren %34,2, alegia. Gastu fiskaletarako aurreikusitako zuzkidura **BPGaren %9,4koa** izan zen; beraz, gastu fiskalik ez balego, hitzartutako zergen presio fiskala BPGaren %29,7koa litzateke. Horrela egitera, presio fiskalaren aldetik **Europar Batasunarekiko dugun defizita ezeztatu ez ezik, aberastasunaren zati handiagoa bideratuko litzateke zergak ordaintzera.**

Gastu fiskal handiena izan zuen zerga **BEZa** izan zen: 2.936,2 milioi eurokoa, hau da, guztizko gastu fiskalaren %50,7; bigarren gastu fiskal handiena **PFEZrena** izan zen, 1.869,3 milioi eurokoa –guztizkoaren %32,3–, hain zuzen ere, eta hirugarrena, Sozietateen gaineko Zergarena, 525,5 milioi eurokoa, hau da, gastu fiskalen %9,1.

4. PERTSONA FISIKOEN ERRENTAREN GAINEKO ZERGA (PFEZ). 2004koa ETA 1999koarekiko BILAKAERA

PFEZ bigarren zerga da, bilketan duen garrantziari erreparatuta. 2003ko ekitaldian PFEZn aitortutakoaren %80,6 lanaren errentatik etorri zen; %8,1, errenta ekonomikoetatik (enpresaburuen, profesionalen eta artisten errentetatik), eta %11,3, bestelako errentetatik (horietan, kapital higigarri eta higiezinaren errentak dira nagusi). Zifrek berriro uzten dute agerian **PFEZren bilketako ekarpen handiena lanaren errentek egiten dutela.**

Horrez gain, lanaren errentei PFEZn dagokien pisua 2,4 puntu hazi da 1999tik 2003ra bitarte, enpresaburuen, profesionalen eta artisten errenten pisua, aitzitik, hein berean murriztu delarik (gainerako errenta-iturrien pisua bere horretan mantendu da aldi osoan). Bilakaerak erakusten duenez, **lanaren errentei PFEZren bilketan dagokien zatia handiena izateaz gain, gero eta proportzio handiagoa dagokio, urteak pasa ahala.**

ERRENTA-ITURRIEK PFEZn DUTEN PISU ERLATIBOA (%).
EAE, 1999-2003

	LANA	EKONOMIKOAK	GAINERAKOAK
1999	78,2	10,5	11,3
2000	78,6	9,3	12,1
2001	79,3	8,7	12
2002	78,6	9,3	12,1
2003	80,6	8,1	11,3
1999-2003	2,4	-2,4	0

Iturria: Zerga Koordinaziorako Organoa

Etekinen pisu erlatiboaren informazioaren arabera, 2004an aitorturikoaren %89,2a lan errentetatik etorri zen, eta %8,8a ekonomi errentetatik.

ETEKINEN PISU ERLATIBOA (%). EAE, 2004

LANA	EKONOMIKOAK
89,2	8,8

Iturria: Zerga Koordinaziorako Organoa

2004ko ekitaldian, lanaren zioz batez beste aitortutako errenta 18.989,8 eurokoa izan zen, hots, jarduera ekonomikoek aitortutakoa -12.012,9 euroko errenta- baino 6.976,9 euro handiagoa, batez beste.

Errenta-iturriei PFEZn dagokien pisu erlatiboaren kasuan gertatzen den bezala, aitortutako bi errenta mota horien arteko aldea handiagoa da, urtez urte. 1999tik 2004ra bitarte, batez beste aitortutako lan-errentek 3.629,3 euroko gehikuntza izan dutelarik, jarduera ekonomikoek aitortutakoa 898,2 euro baino ez da hazi. Era horretan, bi errenta moten arteko **diferentziak** 2.731,2 euroko **gehikuntza** izan du, aztertutako aldian.

KOLEKTIBOEK AITORTUTAKO BATEZ BESTEKO ERRENTA (€).
EAE, 1999-2004

	LANA	EKONOMIKOAK	DIFERENTZIA
1999	15.360,5	11.114,8	4.245,7
2000	16.448,2	10.937,1	5.511,0
2001	17.114,9	11.114,4	6.000,5
2002	17.684,4	11.433,8	6.250,6
2003	18.315,3	11.726,7	6.588,6
2004	118.989,8	12.012,9	6.976,9
1999-2004	3.629,3	898,2	2.731,2

Iturria: Zerga Koordinaziorako Organoa

5. SOZIETATEEN GAINEKO ZERGA

Bilketan dagokion pisuari begiratuta, Sozietateen gaineko Zerga zerrendako hirugarrena da. Hala eta guztiz ere, eta zerga mota horren tasari buruzko diskurtso ofiziala gorabehera, bere presio fiskala EAEn **Europar Batasuneko baxuena** da, Alemaniakoa baino gainditzen ez duena. Euskal enpresen mozkinak, aldiz, markak hautsi dituzte, eta Europar Batasuneko handienetakoak dira.

Gainera, EAeko 54.563 enpresetatik 30.847k likidazio-oinarri negatiboa edo nulua aitortzen dute; hau da, Erkidegoko enpresen **%56k ez du ezertxo ere ordaintzen zerga horren zioz**. Datuok agerian uzten dute zerga horren ordaintzan egiten den eskandaluzko **iruzurra**.

Euskadiko Zerga-Koordinaziorako Organoak emaniko azken informazioaren arabera, Sozietateen gaineko Zergaren benetako tipoa %17koa da EAEn, horrenbeste eztabaida sortarazten duen eta hain altua den **tipo nominalaren erdia** (%32,6 erreforma aurretik). Honen arabera, Sozietateen gaineko Zergan ematen diren gastu fiskalak ia benetako bilketaren beste izango lirateke; zerga honen bidezko bilketa 1.692,4 milioi eurotakoa izan zen 2006 ekitaldian, hortaz, benetako gastu fiskalak 1.553 milioi eurotakoa izan ziren. Ondorioa garbia da: Sozietateen gaineko Zergaren gastu fiskalak aurrekontuetan jasotzen den kopurua hirukoizten du.

6. ZERGA-IKUSKAPENAK

2004ko ekitaldian, EAEn, **111,1 milioi euroko iruzurra antze-man zen** zerga-ikuskapenen bidez. Iruzur handiena Sozietateen gaineko Zergan aurkitu zen (guztizkoaren %41,7koa), eta ondoren, BEZean (%39,4koa), eta PFEZn (%16,2koa). Antzemandako 111,1 milioi euro horien munta irudikatzeko, gogora dezagun, adibidez, ekitaldi horretako etxebizitzako gastua 154,3 milioi eurokoa izan zela, eta Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailaren gastua, 109,7 milioiokoa.

Gaur egun, **errenta ekonomikoen %1,2 besterik ez da ikuskatzen**. Ehuneko horrek, iruzurra egiteko gogoia desagerrarazi beharrean, sustatu egiten du. Aurkitutako iruzurra BPGaren %0,2 bestekoa da. Zerga-ikuskapenetan zenbat diru gastatzen den ez dakigun arren, Nafarroako datua aintzat hartuta, ikuskapenen kopurua handitzea errentagarria izango litzateke, diruaren aldetik.

Zerga-ikuskapenetan aurkitutako iruzurra %3,8 jaitsi zen, 2003koarekin konparatuta; horrek ez du esan nahi, hala ere, egingdako iruzurra txikiagoa izan zenik.

Gipuzkoan ikuskaturiko zergadun kopurura 363koa izan zen 2005. urtean. Kopuru hau murriztuz joan da 1998. urtetik, ikuskaritza kopura 507koa izan baitzen urte horretan (144 gehiago). 2005ean Bizkaian ikuskaturiko zergadun kopurua (1.048) gehitu egin da 1998. urtetik, baina 141eko murrizketa izan du aurreko ekitaldiarekiko.

IKUSKATUTAKO ZERGADUNEN KOPURUA, BIZKAIA ETA GIPUZKOA (*). 1998-2005

	1998	1999	2000	2001	2002	2003	2004	2005
Gipuzkoa	507	576	479	528	390	388	355	363
Bizkaia	636	858	858	873	752	683	1189	1.048

Iturriak: Bizkaiko eta Gipuzkoako Ogasunak

() Arabako Foru Aldundiak ez du zerga-ikuskapenei buruzko informazioa emateko urteko zerga-txostenik prestatzen, eta horren gainean eskatzen zaion informazioa eman ere ez du egiten*

1. HITZARTUTAKO ZERGEN BILKETA.

2006koa ETA 2005ekoarekiko BILAKAERA

Nafarroako Foru Ogasunak **3.339 milioi euro** bildu zituen 2006ko ekitaldian, hau da, 2005ean baino **%14,3 gehiago**. **Zerga garrantzitsuenak** zein izan ziren aztertzean, hauxe ikusten dugu:

- Batez bestekoaren azpitik hazi arren (%11,2), **BEZa** berriro izan zen bilketa handiena eragin zuen zerga (1.094,5 milioi euro), guztizkoaren %32,8 hain zuzen ere.
- Bigarren bilketa handiena **PFEZak** eragin zuen: 1.009,7 milioi euroko sarrerak, hau da kobrantza osoaren %30,2, 2005ekotik %16,6 hazita.
- **Sozietateen gaineko Zergak** eragindako sarrerak izan ziren gehien hazi zirenak (%32,6), bilketan parte hartzen duten zergen zerrendan hirugarren tokira pasatuz. 518,5 milioi euroko bilketa eragin zuen, hots, guztizkoaren %15,5.
- **Zerga Berezien** ondoriozko bilketa %2,6 urritu zen. 394,6 milioi euro, bildu ziren zerga horien zioz, hau da, bilketa osoaren %11,8.

**ZERGA-BILKETA ZERGAZ ZERGA.
EGITURA ETA BILAKAERA. NAFARROA, 2006**

	2006		2005-2006
	Milioi €	%	Ald. %
BEZ	1.094,5	32,8	11,2
PFEZ OSOA	1.009,7	30,2	16,6
SOZIET. GAINEKO ZERGA	518,5	15,5	32,6
ZERGA BEREZIAK	394,6	11,8	-2,6
BESTE BATZUK	321,8	9,6	17,2
GUZTIRA	3.339,1	100	14,3

Iturria: Nafarroako Gobernua

2006ko sarreretan **zuzenekoak eta zeharkakoak** bereizteak honako mapa hau azaltzen digu:

- Batez bestekoa baino gutxiago hazi (%8,1) eta pisua galdu badute ere, **zeharkako zergak** izan ziren nagusi zerga-bilketan, guztizkoaren %50,5 eragin zuten eta. Horrelako zergen bidez, 1.686,9 milioi euro sartu ziren diru-kutxetara.

- Zuzeneko zergak %21,7 igo ziren, batez bestekoa baino askoz gehiago, guztizkoan %48,5eko pisua hartuz. Zerga horien ondorioz 1.619,2 milioi euro bildu ziren.

**ZERGA-BILKETA ZERGA MOTAREN ARABERA,
EGITURA ETA BILAKAERA. NAFARROA, 2006**

	2006		2005-2006
	Milioi €	%	Ald. %
ZEHARKAKO ZERGAK	1.686,9	50,5	8,1
ZUZENeko ZERGAK	1.619,2	48,5	21,7
GUZTIRA	3.339,1	100	14,3

Iturria: Nafarroako Gobernua

Zuzeneko zergak aztertzean, honakoa ikus dezakegu:

- Lanaren PFEZaren bidez, 901,7 milioi euro bildu ziren. Zuzeneko zergen batez bestekoaren azpitik hazi den arren (%11,4) eta pisua galdu duen arren, lanaren PFEZak zuzeneko zergen %55,7 eragiten du oraindik ere.
- Enpresarien, profesionalen eta kapitalaren errenten bilketa 638,7 milioi eurokoa izan zen, hau da, guztizkoaren %39,4. Bilketa horren pisua %29 hazi da 2005ekoaren aldean. Enpresarien, profesionalen eta kapitalaren errenten bilketa zehaztasunez aztertuta ikus dezakegunez:
- *Sozietateen gaineko Zergen* ondoriozko diru-sarrerak 518,5 milioi eurokoak izan ziren, zerga guztien artetik hazkunde handiena izanik, eta zuzeneko zergen ondoriozko bilketaren %32ra heldu ziren. Sozietateen gaineko Zergak eragindako bilketaren hazkunde handiak argi erakusten ditu Nafarroako enpresak eskuratzen ari diren mozkin eskergak.
- *Enpresarien, profesionalen eta kapitalaren PFEZak* 120,2 milioi euro bildu zituen, hau da, zuzeneko zerga guztien ondorioz bildutakoaren %7,4.

ZERGA-BILKETA ZERGAZ ZERGA,
EGITURA ETA BILAKAERA. NAFARROA, 2006

	2006		2005-2006
	Milioi €	%	Ald. %
LANAREN PFEZ	901,7	55,7	11,4
– SOZIE. GAINEKO ZERGA	518,5	32	32,6
– ENPR., PROF., KAP. PFEZ	120,2	7,4	15,3
ENP., PROF., KAP. ERREN.(*)	638,7	39,4	29
BESTE BATZUK	78,7	4,9	213
ZUZE. ZERGAK, GUZTIRA	1.619,2	100	21,7


Iturria: Nafarroako Gobernua

2. HITZARTUTAKO ZERGEN PRESIO FISKALA.
2006koa ETA 1998koarekiko BILAKAERA

Nafarroako Foru Erkidegoko hitzartutako zergen **presio fiskala BPGaren %20,9koa** izan zen; horrek esan nahi du Nafarroako ekonomian sortutako 100 eurotik 20,9 zergak ordaintzeko erabili zirela. Horren arabera, BPGaren 1,2 puntuko gehikuntza egon da atal horretan 2005ekoarekin alderatuta, eta 2 puntukoa, 2004koaren aldean. Hortaz, presio fiskala 1998koa baino handiagoa da, 2005era arte aztertutako aldiaren hasieran baino txikiagoa izan ondoren.

Azken bi urtealdietan –bai eta 1998koarekiko ere– jauzia laburtu bada ere, **zeharkako** zergen presio fiskala (BPGaren %10,6) **zuzenekoa** (BPGaren %10,1) baino **handixeagoa** izan zen 2006an.

HITZARTUTAKO ZERGEN PRESIO FISKALA,
GUZTIRA, ZUZENEKOAK ETA ZEHARKAKOAK.
NAFARROA, 1998-2006 (BPG%)



Iturriak: Nafarroako Gobernua, NEI


Zuzeneko zergen presioa **BPGaren %10,1**koa izan da 2006an, hau da, 2005ekoa baino BPGaren 1,1 puntu altuagoa, eta 1998koa baino 1,6 puntu handiagoa. Zuzeneko zergen presio fiskalaren azterketa zehatzak honako joera hauek agertzen dizkigu:

- Zuzeneko zergen presio handiena lanaren PFEZak jasaten du, BPGaren %5,6 baitagokio. Lanaren PFEZak gehikuntza txikiak izan ditu 1998tik aurrera, eta urte horretatik BPGaren 0,6 puntu hazi da orotara.
- Enpresarien, profesionalen eta kapitalaren errenten presio fiskala BPGaren %4koa izan da, hots, lanaren PFEZarena baino BPGaren 1,6 puntu txikiagoa. Enpresarien, profesionalen eta kapitalaren errenten presioa ere BPGaren 0,7 puntu hazi da bai 2005ekoari, bai 1998koari buruz. Enpresarien, profesionalen eta kapitalaren errenten osagaiak aztertzean, hauxe ikus daiteke:
- *Sozietateen gaineko Zergaren* presio fiskala BPGaren %3,2koa izan da, alegia, 2005ekoa baino BPGaren 0,6 puntu altuagoa,

eta 1998koa baino 0,7 puntu handiagoa; horixe da enpresarien, profesionalen eta kapitalaren errenten presio fiskalak izan duen gehikuntzaren arrazoa.

- Enpresarien, profesionalen eta kapitalaren PFEZak BPGaren %0,8ko presio fiskala izan du, 2005ean baino BPGaren 0,1 puntu handiagoa, eta 1998an baino 0,1 puntu txikiagoa.

HITZARTUTAKO ZUZENENKO ZERGEN PRESIO FISKALA. NAFARROA, 1998-2006 (BPG%)



Iturriak: Nafarroako Gobernua, NEI

3. IPERTSONA FISIKOEN ERRENTAREN GAINENKO ZERGA (PFEZ). 2005ekoa ETA 2001ekoarekiko BILAKAERA

Lehenengo atalean ikusi dugun bezala, PFEZa bigarren zerga da, bilketako garrantziari dagokionez. Zerga hori sakonago aztertuta ikus daitekeenez, 2005ean (aldagai horri buruz dugun azken informazioa urte horretakoa da eta) PFEZan aitortutakoaren %79,8 lan-errentetatik etorri zen; enpresari eta profesionalen errentetatik %7,8, eta gainerako errentetatik –batez ere kapitala tartean

dela- %12,4. Hortaz, PFEZan aitortutako 10 eurotik ia 8 lanaren errentetatik dator.

PFEZaren osagai horien **bilakaerak** erakusten digunez, aldeak, laburtu beharrean, zabaldu egin dira. Zehazki, 2001etik 2005era bitartean, lan-errenten pisua 0,2 puntu hazi da; enpresari eta profesionalen errentak, aldiz, 1,7 puntu urritu dira (gainerako osagaien portzentajea 1,5 puntu handitu da).

**ERRENTA-ITURRIEN PISU ERLATIBOA (%).
NAFARROA, 2001-2005**

URTEA	LANA	ENPR., PROF.	GAINERAKOAK
2001	79,6	9,5	10,9
2002	80,7	9,1	10,2
2003	81,6	8,9	9,4
2004	81,3	8,5	10,2
2005	79,8	7,8	12,4
2005-2001	0,2	-1,7	1,5

Iturria: Nafarroako Gobernua

Kolektibo bakoitzak, **batez beste**, PFEZan **aitortzen dituen errentei** erreparatzen badiegu, kasuistika errepikatu egiten dela ikus dezakegu. Zehatz esateko, batez beste aitortutako **lan-errenta 23.461,2 eurokoa** izan zen 2005ean, **jarduera profesionalak** aitortutako batez besteko errenta (**11.756,3 euro**) baino 11.704,9 euro handiagoa, alegia. Distantzia are handiagoa da **enpresarien jardueren** zioz batez beste aitortutako errentari begiratuta (14.261,5 euro), **9.199,7 euroko** batez besteko diru-sarrerak aitortu zituzten eta.

Datuok erakusten duten **joera** ere **kezagarria** da, aztertutako aldiaren gehien hazi den batez besteko errenta aitortua lanarena izan delako, alde handiz. Lanaren errentak 4.756,6 euroko gehikuntza izan zuen 2001etik 2005era bitartean; jarduera profesionalak aitortutako errenta, berriz, 1.328,4 euro baino ez zen handitu, eta enpresa-jarduerak aitortutakoa, 825,7 euro. Horrela, batez beste aitortutako lan-errentaren eta profesionalen errentaren arteko jauzia 3.428 euro handiago egin zen 2001 eta 2005 artean, eta batez beste aitortutako lan-errentaren eta enpresarien errentaren artekoa, 3.931 euro handiago.

KOLEKTIBO BAKOITZAK BATEZ BESTE AITORTUTAKO
ERRENTA (€). NAFARROA, 2001-2005

URTEA	LANA	PROFESIONALAK	ENPRESARIAK
2001	18.704,5	10.427,9	8.374,0
2002	19.221,4	10.545,1	8.217,2
2003	20.309,3	10.831,5	8.464,3
2004	21.100,5	10.124,1	8.514,3
2005	23.461,2	11.756,3	9.199,7
2001-2005	4.756,6	1.328,4	825,7

Iturria: Nafarroako Gobernua

4. IZERGEN IKUSKAPENAK

Iruzur fiskal nabariak lotura estua du, zalantzarik gabe, bera desagerrarazteko egiten den ahalegin urriarekin. 2006ko aurrekontuan, 33 ikuskatzaile zehaztu ziren Foru Erkidego osorako, eta 350 ikuskapen egiteko helburua finkatu zitzairen ikuskatzaileoi; horrek esan nahi du ikuskatzaile bakoitzak urtean 11 ikuskapen baino gutxiago egin behar zituela.

Iruzur fiskalak baliabide asko galarazten ditu, Europako presio fiskalera hurbiltzea eta gastu publikora diru gehiago bideratzea ahalbideetako luketen baliabideak, hain zuzen ere.

5. GASTU FISKALAK

Foru Ogasunak diru-zenbateko handiak uzten ditu bildu gabe, zerga-salbuespen, zerga-kenketa, eta abarren zioz; horrek ere baliabide publiko asko galarazten ditu. Gastu fiskal horiek, gainera, ez dira zuzeneko gastu publikoa bezain aurrerakoiak, baliabide gutxien dituen biztanleriari ez baitio inolako onurarik ekartzen, eta onuragarriagoa baita aukera gehiago dituztenekiko.

Nafarroako 2006rako aurrekontuak 1.328,2 milioi euroko zuzkidura jasotzen du gastu fiskaletarako; horrek esan nahi du horrelako gasturik gabe, diru-sarrerak %28,2 handiagoak izango zirela. Gastu fiskaletarako, **BPGaren %8,6** jaso da aurrekontuan; horren arabera, gastu fiskalik ez balego, hitzartutako zergen presio fiskala BPGaren %29,5ekoa litzateke. Horrela, halaber, **hurbilago egongo ginatke Europar Batasuneko presio fiskaletik.**

Gastu fiskal handiena eragin zuen zerga **BEZa** izan zen: 627,4 milioi eurokoa, hain zuzen ere, hau da, guztizkoaren %47,2. Hurrengo gastu fiskal handiena **PFEZ**arena izan zen: 376,9 milioi eurokoa, hots, guztizkoaren %28,4. Hirugarrena **Sozietateen gaineko Zerga**rena izan zen, 196,2 milioi euro eta gastu fiskal guztien %14,8rekin.
